



Prensa-oharra, 2011/02/28


ETXEGINTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2010eko 4. hiruhilekoa

Etxebizitza berriak eraikitzeko aurreikuspenak behera egin du 2010eko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

1.752 etxebizitza eraikiko direla aurreikusten da, 2009ko laugarren hiruhilekoan baino 219 (% 11,1) gutxiago, eta aurreko hiruhilekoan baino 279 (hau da, % 13,7) gutxiago.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2010eko laugarren hiruhilekoan aurreikusi denez, oin berriko 1.752 etxebizitza eraikiko dira, iazko denboraldi berean baino % 11,1 gutxiago, eta 2010eko hirugarren hiruhilekoan baino % 13,7 gutxiago.

Evolución del número de Licencias de Obra Mayor por territorio histórico y trimestre.
C. A. de Euskadi. 1998-2010.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika

Araban (796 etxebizitza) Euskal Autonomia Erkidego osoan eraikitzea aurreikusita dagoen oin berriko etxebizitzaren % 45,4 eraikiko dira. Horrek esan gura du aurreko urteko (2009ko) hiruhileko berarekin alderatuta % 32,5 gutxiago eraikiko dela, baina



2010eko hirugarren hiruhilekorako aurreikusitako oin berriko etxebizitzak baino % 59,8 gehiago.

Atzetik Bizkaia dator 616 etxebizitzarekin, hau da, laugarren hiruhilekoan aurreikusitako oin berriko etxebizitzaren guztizkoaren % 35,1ekin. Lurralde horretan izan da aurreikusitako etxebizitzaren hazkunde handiena, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, ia halako bi, (% 86,7 gehiago). Gainera, aurreko hiruhilekoan baino % 19,4 aurreikusi dira.

Bestalde, Gipuzkoan oin berriko 340 etxebizitza eraikiko direla aurreikusten da (guztizkoaren % 19,4), aurreko hiruhilekoan baino % 37,0 gutxiago, eta 2009ko laugarren hiruhilekoan baino % 34,8 gutxiago.

Arabako Lautadan Araban aurreikusita dauden oin berriko etxebizitzaren % 90,6 daude, Donostian Gipuzkoakoaren % 77,6 eta Bilbo Handian, Bizkaikoaren % 26,9.

Aurreikuspenen arabera, Gasteizen oin berriko 717 etxebizitza eraikiko dira, hau da, Autonomia Erkidego osoko % 40,9 eta Arabako % 90; jarraian Durango dago, 192 etxebizitzarekin -Autonomia Erkidegoko % 10,4-, eta atzetik Donostia, 155 etxebizitzarekin —% 8,8—. Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietatik, 50etan —5etik batean— zegoen etxebizitza berriak eraikitzeko asmoa.

Bestalde, hiruhileko honetan aurreikusitako 95 birgaitzeak 2009ko hiruhileko berean aurreikusitako 113 birgaitzeak baino % 15,9 gutxiago izan dira; eta 2010eko hirugarren hiruhilekoan aurreikusitakoak baino % 32,1 gutxiago.

EAEko udalek emandako obra handiko lizentzia kopurua % 30,5 igo da 2010eko laugarren hiruhilekoan, betiere kopuru hori 2009ko aldi berarekin alderatuta.

Udalek onartzen dituzten obra handiko lizentzien kopurua (eraikuntza ez publikoaren sektorearen egoeraren adierazle gisa erabili ohi da) 637koa izan zen 2010eko laugarren hiruhilekoan. Hau da, urtebete lehenago baino % 30,5 gehiago, baina aurreko hiruhilekoan baino % 5,5 gutxiago.

Hamarretik zazpi baino gehiago —% 73,6— birgaitze-lizentziak dira; % 23,7 oin berriko eraikinetarako, eta % 2,7 eraisketa-lanak egiteko soilik —guztira 17—.

Bizkaian obra handiko 326 lizentzia eman dira, Araban 221, eta Gipuzkoan, 90. Azken horren kasuan, oin berriko eraikinak egiteko lizentziak lizentzia guztien % 40 dira, eta Arabaren eta Bizkaia-aren kasuan, aldiz, % 22,6 eta % 19,9 hurrenez hurren.

Arabaren lizentzien guztizkoa % 39 igo da 2009ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, baina % 39 jaitsi aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Bizkaian obra handiko lizentzien kopurua % 32 igo da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, eta % 12,4 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Azkenik, Gipuzkoan lizentzien kopurua % 9,8 igo da



2009ko laugarren hiruhilekotik 2010eko laugarren hiruhilekora, baina aurreko hiruhilekoan emandakoein alderatuta, % 25,6 jaitsi da.

Arabako Lautadan eman dira Arabako lizentzien % 73,8. Ehuneko hori Bilbo Handiak Bizkaiarekiko duen ehunekotik –% 69– hurbil dago; aitzitik, Donostialdean Gipuzkoako lizentzia guztien % 48,9 baino ez dira eman.

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA EAE-N		2010eko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldea		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldea	
OBRA HANDIETARAKO LIZENTZIAK		Kopurua	%	Kopurua	Aldea (%)	Kopurua	Aldea (%)
EAE	Guztira	637	100,0	-37	-5,5	149	30,5
	Oin berriko eraikinak	151	23,7	-27	-15,2	9	6,3
	Birgaitzeak	469	73,6	-14	-2,9	136	40,8
	Eraispenak	17	2,7	4	30,8	4	30,8
Araba	Guztira	221	100,0	-42	-16,0	62	39,0
	Oin berriko eraikinak	50	22,6	-5	-9,1	1	2,0
	Birgaitzeak	164	74,2	-39	-19,2	62	60,8
	Eraispenak	7	3,2	2	40,0	-1	-12,5
Bizkaia	Guztira	326	100,0	36	12,4	79	32,0
	Oin berriko eraikinak	65	19,9	-10	-13,3	9	16,1
	Birgaitzeak	255	78,2	45	21,4	65	34,2
	Eraispenak	6	1,8	1	20,0	5	500,0
Gipuzkoa	Guztira	90	100,0	-31	-25,6	8	9,8
	Oin berriko eraikinak	36	40,0	-12	-25,0	-1	-2,7
	Birgaitzeak	50	55,6	-20	-28,6	9	22,0
	Eraispenak	4	4,4	1	33,3	0	0,0
AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA							
EAE	Guztira	1.847	100,0	-324	-14,9	-237	-11,4
	Oin berriko eraikinak	1.752	94,9	-279	-13,7	-219	-11,1
	Birgaitzeak	95	5,1	-45	-32,1	-18	-15,9
Araba	Guztira	824	100,0	309	60,0	-379	-31,5
	Oin berriko eraikinak	796	96,6	298	59,8	-383	-32,5
	Birgaitzeak	28	3,4	11	64,7	4	16,7
Bizkaia	Guztira	660	100,0	85	14,8	281	74,1
	Oin berriko eraikinak	616	93,3	100	19,4	286	86,7
	Birgaitzeak	44	6,7	-15	-25,4	-5	-10,2
Gipuzkoa	Guztira	363	100,0	-718	-66,4	-139	-27,7
	Oin berriko eraikinak	340	93,7	-677	-66,6	-122	-26,4
	Birgaitzeak	23	6,3	-41	-64,1	-17	-42,5

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistikarako Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak Interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/es/>

WEBGUNEA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/es/>